

Abertzaleak eta ezkertiarak

ezta
baida

Julen Zabalo | 001



66EH)

ELKARLANEAN

Abertzale izatea herria maitatzea da ala gehiago da?

Zenbat kultura ditugu Euskal Herrian, eta zenbat nahi ditugu abertzaleok: bat, bi ala hiru? Egia da euskara barik ez dagoela euskal aberririk?

Badu lekurik Euskal Herri subirano batek mundu globalizatuan, ala kultura unibertsalerantz goaz? Ezker abertzaleak abertzaletasun berezia garatzen du, ala bi ezau-garriak elkartzen dio soilik, batuketa berezirik sortu gabe?

Aberriaren arazoa garbi omen dauka abertzaleak, eta eztabaida gutxi egiten du arlo teoriko honetan. Hala ere, halako galderak egitean zalantzak sortzen dira, abertzale-tasuna ez baita sentimendu hutsa, gizartea eratzeko pentsaera bat baizik, eta ezin normalagoa da beraz desadostasunak agertzea.

Zalantza horiek abiapuntu hartuta, aberriaren inguruan sortzen den hainbat gai plazaratzen da liburu honetan: batzuetan egileak bere iritzia eskaintzen digu, eta besteetan bere duda-mudak baizik ezin ditu agertarazi. Irakurlea ere ados egongo da batzuetan eta kontra besteetan, baina kontu hauez gogoeta egitean argiago eta finkoago edukiko ditu ziurrenik kontzeptuok.